

Ezkontza

IÑIGO ARANBARRI



JOSE Antonio deitu zuten. Joxean deitzen da, inoiz besakartu izan zutenek horrela esanda.

Kanpoan gauzak zenbat aldatu diren ikusteko esan zioten: baina ezin urrutira ikusi, altua du horma patioak eta ohe ondoan izan ditzakeen bi liburuak asteak dira erakutsi dietela erakutsi beharrekoa.

Ezkontzeko ordua heldua zuela esan zioten: berak ezetz dio, ez dela biluztuko. Gorroto dituela gorputzen biluztasunen barrenean biluztasunaren bila araka dabilzan eskuak.

Erabakia hartzeko esan zioten: jangelara ez jeistea erabaki zuten. Ez janez erakutsiko zuten bizi nahi zutela.

Jateari ekitea erabaki zuten egunean irratia piztu zuten: notizia ez dela berrogei egunez baraurik egotea ikasi zuten. Notizia ez direla egon jakitea izan da. Gordean zirela elikatzen. Ez dagoela hainbeste egiterik hainbestetan. Asteke berrien artean gabardina zeraman alkate baten gainean mintzatu da spikerra. Autobus bat aipatu du, erreta. Nazkatuta dagoela jendea. Milioitako galera. Beste autobus batzuei buruzko zerbait entzutea ere espero zuela esan dio saihetsean duenak. Hiru mila lagunetik gora zirela joatekoak eta esan beharko duela parteak. Gauekoak baikere. Baina Asierrek jokatu ahal izango duela Burgosen kontrako partidua esanez mututu zen irratia.

Azajaleak partitu orduko, Bergarako Olasonekoaren zera bat, etxe oneko itxura duen Walte Luyten ikusi uste izan dute autobus bati sua ematen Europak bihotza hain goian duen hartan.

Atez barruko indarkeria

NEREA AZURMENDI



ASTE batzuk berterik ez dira iragan bikote batek zazpi hilabetetako alaba bizirik ehortzi zuenetik. Astelehenean eman zioten lur 18 egunetako haur bati. Aita pilotan aritu zen jaito berriarekin, lurraren kontra erreboteka. Bi hilabetetako alaba tiroka akabatu zuen beste batek asteartean geroxeago bere buruaz beste egin zuen gizonezkoak. Gehiegixko kasualitate hutsak izateko, kasualitate sinesgaitzak estatistikak kontutan hartu ezker.

Honelako pasadizuek tratu txarren gailurrean aurki daitezke. Hortik behera, orde, amaigabea da atez barruko indarkeriaren ondorio ezagunen katalogoa, Ezezagunak, itzaletan egon arren, erraz somatzen dira, eta ez dira beti urrunekoak izatean. Zorabioak, salbuespenak salbuespen, badu nolabaiteko barne-lojistikarik: bikote gazteak —umeak kasik—, drogak —drogetan legalena gehiengotan—, inguru latzak, aurrez ezagunak ziren portaera biolentoak askotan... Eta biktima ezagunak: emakumeak eta haurrak.

Familiarik hoberenetak gerta daiteke eta gertatzen da, bai eta koskorrenetan ere. Baina ez da arazo pribatua, askok halakorik uste badu ere. Gizarte osoaren arazoa da, eta beste arazo batzuei aurre egin nahi zaien moduan egin behar zaio aurre honi ere. Atez barruko terroristak ezin daitezke salaketarik gabe gelditu, ez dago berehala ahazten den sententzia legunik ametitzerik, askotan astakeria hauek kate luze eta bakar baten mailak berterik ez dira eta. Agian indarkeria moeta honi gogor ekiteak ez du botu askorik emango, baina itsuarena egiteari edo eta kronika beltz morbosoa gelditzari konplizitatea deritzot.

● EL CORREO ESPAÑOL

EE: hamargarren urteurrena

Hamar urte hauetan argi geratu da Euskadin dagoen ezkerreko sozialista izango dela edo ez dela izango. Lehenik, espazio politiko hau elkarbanatu zuten gainontzeko korronte ideologikoak —liberalismoa, erradikalismoa, errepublikanismoa— desagertu egin direlako, neurri handi batean azken bosturtekoetan gertatu diren gizarte eta ekonomi aldaketak sakonengatik. Bigarren, euskal nazionalismoaren barruan sortu diren ustezko ezker alternatibak, sozialdemokraziatik eta langileen mugimendutik sortutako erreindikazioak modu guztiz utilitaristan erabiltzera mugatzen direlako, nazionalismoaren erradikalismoaren menpe dauden estrategietan sar daitezten.

JUAN MARIA BANDRES



ZULET / EL CORREO ESPAÑOL

● EL DIARIO VASCO

Atzerapausurik gabeko irtenbidea

Autobidearen konponbideak,

zalantzarik gabe, eztabaida handia sortuko du terrorismoaren aurkako estrategiari eta Ajuria Eneako Hitzarmenaren koherentzia hondatuari buruz. Nahasketa eta etsimena ekarriko die orain arte autobidea errepidea baino askoz gehiago zela uste zutenei, alegia, sinboloa zela demokraziaren pultsoan indarke-riaren txantaiaren aurrean. Bilera

luzeen ondoren, EAJk eta PSOEk hurbildu egin dituzte beren klabeak funtsezkoa den honako arrazoi- gatik: Arzalluz eta Corcuera leialtasuna hitzartu dute, fidatzen dira, besteak beste, nazionalistek eta sozialistek bata bestearen beharra dutelako aliatu modura elkar- tze.

ALBERTO SURIO

ZUZENDARIARI

Geroa euskaraz dator

Berriro urtero bezala, aurre-matrikula- zioaren kanpainen aurkitzen gara.

Berriro zentru mota eta eredu guztien eskaintza hemen bertan. Denek eskaintzen dute hoberena. Baina neuk ere, guraso eta euskal- dun berri naizenez, zerbait adierazi nahi nuke hiritar-kolektibitatearen gogoetan lagun de- zakeelakoan:

1. 'Geroa euskaraz dator' lemarekin bat na- tor.

Euskal Herrian zein (ni bezala) Euskal He- rritik kanpo jaiotakoak, baina hau Herritzat dugunok, argi eta garbi esan behar dugu, ahal eta aukera izan dugunok, euskara ikastearen garrantzia beharrezko ikusi dugula; baina 'ezinbestekotzat' gure umeek ikastea, hau bait da beraien Herria eta hemen garatuko da be- raian 'geroa'.

2. Herri batean bizi izanez gero, eta herri horretako hizkuntzaz jabetuz gero, ez dago baztertua edo beste komunitate bateko partai- de sentitzeko arazorik. Hau da, hizkuntza, euskara kasu honetan ez dadila banatzailea izan, elkartzeko baizik.

3. Gaur egun Irakaskuntza publiko eta ka- litatezkoan esperantza dugunok, ezin inolaz

'euskalduna' izan beharra baztertu. Horrega- tik euskalduntzearen arlo edo atal hau garran- tzi handikoa izanik hemengo hirritar guztion kezka eta egin beharra dela deritzot.

4. Azkenik esan, ni hartu nauen herri honek; bere kontra egin gabe, bere izaera errespetatuz pixkanaka barruan sartu naizen ereduak (ha- rrokeriarik gabe) benetan ateak zabaltu dizkit eta afektu handiz ikasi dut euskara. Hizkuntza, beraz, harremana eta afektibotasun mundu horretan bizi denez, jende askok hain beldur- garritzat duen *integratio* eza hori utz dezake alboan zeren eta gure umeek beraien arteko harremanak afektibotasun osoz egin eta bizi ditzakete euskararen mundu honetan.

Nik, guk euskaraz matrikulatzearen aldeko apostua egiten dugu, zuk zergatik ez?

CARLOS PEREZ
Durango (Bizkaia)

EGUNKARIAK ez gaitu kontuan hartzen

Joan den larunbateko EGUNKARIAren Za- rauzko gehigarri bereziko 'Hezkuntza' orrial- dean, gure herriko lau ikastetxei eginiko el- karriketak azaldu ziren, sarreran aipamen


honekin: «...Herriko ikastetxe handienek OHOn behinik behin, Deredua erabiltzen dute soilik, eta Goi Zikloetan ere euskal ereduak indartuz doaz...».

Hori horrela izanik ere, hain 'handiak' ez diren ikastetxe batzuk ikasleak euskalduntzen ahalegin handiak egiten dituztela ezin uka de- zakezue. Orokietari Herri Eskolan behintzat Eskolaurre, Hasiera Ziklo eta Erdi Zikloko ikasle gehienek bere ikasketak D ereduan egiten dituzte, D ereduko adarra 6. mailaraino iritsi da aurtengo ikastaroan eta Goi Zikloko beste mailetan B ereduan irakasten da, guzti hori ikasle askoren gurasoak erdaldunak izan- nik.

Beraz, gure eskola ikasleak euskalduntzen asko saiatzen da, nahiz eta herritar askok egoera hori ez ezagutu. Tamalez, jendea ez- jakintasunean egongo da berriz ere EGUNKARIAK izan duen bezalako jarrerak ematen badira, zeren aipatutako orrialdearen gaiak Hezkuntza eta Euskara izanik ez da egon lekuri gu bezalako ikastetxe 'txikiak'. Ez genuen espero horrelako bazterketarik EGUN- KARIAren aldetik.

OROKIETA HERRI ESKOLAKO
IRAKASLEEN KLAUSTROA
Zarautz (Gipuzkoa)

GAIA JARRITA



Hego Afrika askatasuna eske

Berrogei miloi beltz omen daude eta hiru miloi zuri beraz zurien botere maila txorakeri bat dirudi azalez gauzak aldatu dira baina horra hor kasu bi Plebiszitua irabazita Pinochet ez zuten mugi ta egun baten estatutu bat eskeini ziguten guri.

JON MAIA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:
MARTIN UGALDEKontseilu Editorialeko Lehendakaria:
JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak:
LUZIEEN ETXEZAHARRETA, IÑAKI URIA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitatea: KORNELIO ROTETA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02

Pabilioak / 20160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egoitza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso

Jakituna, 16-1. / 20010 Donostia / ☎: 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Araba: San Antonio, 20-1. Lezker. / 01005 Gasteiz / ☎: 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma. / 48002 Bilbo / ☎: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurd / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11